



## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko beste enpresa batzuekin elkartzea beharrezkoa ikusten dugu, hau da, gure helburuetako bat, beste enpresa batzuekin elkartzea da, hauek eskaintzen diguten baliabideekin gure produktua sortu nahi dugulako.

Tirapan egingo den lana, Ezpeletak emandako baliabideak erabiliz, hau da, enpresa honek emandako oihal ez erabilgarrien bidez, produktua ekoiztearen montaiia egingo dugu. Adibidez, oihalarekin lan egiten duen enpresa batekin kontaktuan jartzea, ondoren beraiek erabiltzen ez dituzten materialekin gure produktua sortu ahal izateko. Aurreko hau, lehengaiak eta produkzioarako beharrezko materiala lortzeko egingo dugu, eta horrez gain, oihal horrerik beste bizitza berri bat emanez eta birziklatuz beste produktu batzuk egiteko eta inolako arazorik gabe berrerabil daitekeen materiala alferrik ez galtzeko.

Bestalde, gure bazkide nagusienak produktua erosi nahi dituzten horiek dira, udaletxeak diru laguntzak emango dizkigu 6000€-koa izango dena. Laguntza hau enpresa berria sortu izanagatik emandakoa izango da. Hau guztiaren ondorioz, prezio baxuagoa ordaindu beharko dugu negozioa hasierako orduan, eta bukaerako kostuetan eragin nabarmena edukiko du udaltxearen diru laguntza honek.

Salmentara bideratuta, beste aliantza batzuk egingo ditugu beste negozio batzuekin. Alde batetik, Eroskiko zentralarekin jarriko gara harremanetan, enpresa honek gure produktua bere denda guztietan salmentan jartzeko, eta horrela, gure produktuaren salmenta handitzeko. Baita, gure herriko burdindegiaz beste aliantza bat egingo dugu, binztanleei produktu hau eskaini ahal izateko, eta bertako bezeroekin harreman estuago bat sortzeko. Burdindegi honek, gure produktuaren materiala eskainiko digu, eta bertako produktuak erabilgarri edukiko ditugu.

Aliantza hauen ondorioz, eragin positiboak izango dugu parte hartuko dugun denok. Guri produktuak saltzea ahalbidetzen digute, eta produktua ekoitzi ahal izateko aukera eta baliabideak emanez. Bestetik, beraiantzat ere eragin positiboa izango du, zeren eta negozio hauen salmenta handitu egingo baita gure kontsumoari esker beraien negozioetan.